

8. ARTIKULUA

Hizkuntza-esparrua

1. Hezkuntza-sistemaren hizkuntza-helburua da ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea, eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik. Derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek hizkuntza ofizialak ondo menderatu beharko dituzte, eta gaitasun-maila nahikoa izan beharko dute, gutxienez atzerriko hizkuntza batean. Halaber, elebitasuna finkatzea sustatuko da, euskararen erabilera bultzatuta.
2. Hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza antolatzeko eta horiek tratatzeko eta erabiltzeko irizpideak ikastetxeen autonomiaren esparruan zehaztuko dira, ikasleen eta beren ingurunearen errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta. Ikastetxeak hartzen dituen erabaki guztiak ikastetxearen hizkuntza-proiektuan eta curriculum-proiektuan zehaztu beharko dira.
3. Hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan euskara ohiko adierazpen-bidea izan dadin sustatu eta ziurtatuko da.
4. Komunikazio- eta hizkuntza-konpetentziaren garapena zeharka landuko da curriculum-arloen testuinguruan.
5. Euskal Hezkuntza Sistemari berandu sartzen diren ikasle atzerritarren harrerak eta hizkuntza-arretak ikasle horien inklusioa ahalbidetuko duten prestakuntza, ikerketa eta garapeneko programa integralak eskatuko ditu.